**Ipurua kiroldegia handitzeko nahitaez okupatu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrenda.**

- 1 ZENBAKIKO PARTZELA: Santaiñes kaleko 3a eta 5a
- Titulartasuna: Isasiko Moja Kontzeptzionista Frantziskotarrak.
- Katastroaren izaera: Hiri-finka.
- Katastroaren erreferentzia: 4281074
- Erregistroaren erreferentzia: Eibarko 13281 finka.
- Deskripzioa: Eliza eta komentua, Eibarko herriaren zabalgunean kokatua; gaur egun, Santaiñes kalea. Eraikuntza horrek ondokoak hartzen ditu: eliza, berrehun eta zortzi metro eta hogei dezimetro karratuko azalera okupatzen duena; komentua, laurehun eta hirurogeita hiru metro eta berrogei dezimetroko azalera duena; eta, azkenik, arkupeak, hirurehun metro karratu hartzen dutenak. Guztira, bederatziehun eta hirurogeita hamaika metro eta hirurogei dezimetro karratu. Eraikuntzaren mugak:

**Segundo.-** Aprobar definitivamente, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley de Expropiación Forzosa y 16 de su Reglamento, la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución del proyecto

En cuanto a la relación de bienes y derechos afectados es la siguiente:

**Relación de bienes y derechos de necesaria ocupación para la ampliación del complejo deportivo Ipurua.**

- PARCELA Nº 1: Santainés 3 y 5
- Titularidad: Religiosas Concepcionistas Franciscanas de Isasi.
- Naturaleza catastral: Finca urbana
- Referencia catastral: 4281074
- Referencia registral: finca 13281 de Eibar.
- Descripción: Iglesia y convento, sito en el Ensanche de la villa de Eibar, hoy calle Santaines. Esta edificación está constituida por la Iglesia propiamente dicha que ocupa una superficie de doscientos ocho metros y veinte decímetros cuadrados, el convento con una superficie de cuatrocientos sesenta y tres metros y cuarenta decímetros cuadrados y un porche que ocupa trescientos metros cuadrados, lo que hace una superficie total de novecientos setenta y un metros y sesenta decímetros cuadrados. Linda la totalidad de la

Iparraldean, bereizten den lursailaren gainerako zatia; hegoaldean, ekialdean eta mendebaldean, gaur egun Eibarko Udalaren jabetza.

- Oharrak: erregistroaren deskripzioan trukatuta daude iparraldeko muga eta hegoaldekoa.
- Okupazioa: finkaren desjabetze osoa.

- 2 ZENBAKIKO PARTZELA. Santaiñes kaleko 3a eta 5a.

- Titulartasuna: Isasiko Moja Kontzeptzionista Frantziskotarrak.
- Katastroaren izaera: Hiri-finka.
- Katastroaren erreferentzia: 4281184
- Erregistroaren erreferentzia: Eibarko 13281 finka.
- Deskripzioa: lursaila Ipurua aldean, Eibarko jurisdikzioan; sei mila zazpiehun eta laurogeita hamar metro eta berrogeita lau dezimetro karratuko neurrikoa; mugak: iparraldean, eliza eta komentua, moja Kontzeptzionistek okupatutakoa; hegoaldean, Eibartik Elgetarako errepidea; ekialdean, banandutako lursaila, kirol-gunerakoa, eta mendebaldean ere banandutako lursaila, hori ere kirol-gunerakoa.
- Okupazioa: finka osoa desjabetzea

**Hirugarrena.-** Akordio hau Nahitaezko Desjabetze Legearen 21 artikuluak azaldutako eran

edificación: norte, resto el terreno del que se segrega, sur, este y oeste, con propiedad hoy del Ilustre Ayuntamiento de Eibar.

- Observaciones: En la descripción registral el límite norte y el sur están intercambiados.
- Ocupación: Expropiación completa de la finca.

- PARCELA Nº 2: Santainés 3 y 5.

- Titularidad: Religiosas Concepcionistas Franciscanas de Isasi.

- Naturaleza catastral: Finca urbana
- Referencia catastral: 4281184
- Referencia registral: finca 13281 de Eibar.
- Descripción: Terreno en la zona de Ipurua, jurisdicción de Eibar; que mide seis mil setecientos noventa metros y cuarenta y cuatro decímetros cuadrados, linda; norte, Iglesia y Convento ocupados por las Madres Concepcionistas, sur, carretera de Eibar a Elgueta, este, terreno segregado destinado a zona deportiva, y oeste también terreno segregado y destinado también a zona deportiva.
- Ocupación: expropiación completa de la finca.

**Tercero.-** Proceder a la publicación y notificación del presente acuerdo en los términos señalados en el artículo 21 de la ley de

jakinarazi eta emango da argitara; beraz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean eta zabalkunde handieneko egunkarietako batean argitaratuko da.

expropiación forzosa, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en uno de los diarios de mayor circulación.

**Laugarrena.-** Akordioa Donostiako Gotzainari helaraziko zaio, hura baita Elizako agintaritza eskuduna.

**Cuarto.-** Del acuerdo se dará traslado al obispado de San Sebastián como autoridad eclesiástica competente.

## 6. EUSKARALDIA UDALERRI BARRUAN SUSTATZEKO AITORPEN INSTITUZIONALAREN KONTU-EMATEA.

**Lejardi Galarraga jaunak** hitzez hitz irakurri du honako Deklarazio Instituzional hau:

“Gipuzkoan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen erronketako bat, eta, horrenbestez, horretara bideratutako urratsak egitea.

## 6. DACIÓN DE CUENTAS DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA PROMOCIONAR EUSKARALDIA DENTRO DEL MUNICIPIO.

**El Sr. Lejardi Galarraga** da lectura a la Declaración Institucional del siguiente tenor literal:

“Dos son las lenguas oficiales en Gipuzkoa, el euskera y el castellano. Sin embargo, resulta evidente que ambas lenguas no se sitúan en un plano de equilibrio y que tanto en la esfera pública como en la social el castellano es preponderante. Consideramos que con la mera continuación de las actuales prácticas es imposible alcanzar un escenario de paridad; creemos que debemos dar mayor impulso a la igualdad lingüística, dando, para tal fin, prioridad al euskera. Uno de los retos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los ayuntamientos guipuzcoanos es alcanzar la igualdad lingüística, social y de género y, en consecuencia, dar los pasos necesarios para ello.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza gutxi batzuk dira nagusi munduan, hizkuntza txiki eta gutxitu askorekin elkarbizitzan.

Gipuzkoan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetza osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea -Eusko Jaurlaritzaren Eta Hemendik Aurrera Zer txostenak ere halaxe jasotzen du-, eta, era berean, premiazkotzat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan, emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

Asimismo, UNESCO considera que uno de los retos más importantes de este siglo es preservar el patrimonio lingüístico mundial y poder desarrollar las lenguas minorizadas. Cerca de 7.000 lenguas componen el patrimonio lingüístico mundial. El 97 % de la población mundial tiene como lengua materna el 4 % de las lenguas existentes, y el 3 % de la población, el 96 % restante. Por lo tanto, son muy pocas las lenguas mayoritarias en el mundo, y conviven con multitud de lenguas minoritarias y minorizadas.

En Gipuzkoa se hablan más de 100 lenguas, y tendremos que aprender a gestionar adecuadamente esa diversidad. No obstante, el primer paso para una convivencia saludable es conseguir que el euskera y el castellano alcancen una situación de equilibrio.

En ese sentido, es preciso aunar los esfuerzos entre las personas, la sociedad y las administraciones y seguir sustentándose mutuamente -así lo recoge también el informe Eta Hemendik Aurrera Zer del Gobierno Vasco-; del mismo modo, resulta imprescindible hacer un sitio a las nuevas normas lingüísticas sociales en favor de las lenguas minorizadas.

El proceso de normalización del euskera ha tenido un recorrido fructífero en las últimas décadas, gracias a la colaboración de todos. El resultado ha sido destacable, pero, como en todos los procesos, ha tenido sus luces y sus sombras; hay motivos para estar satisfechos y también datos preocupantes.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute gora azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi; Gipuzkoan bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta biztanleen % 73,3k euskara ulertzen du. Erabilera-datuek diotenez, aldiz, Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen % 39,5ek hitz egiten du euskaraz.

Datuon argitan, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuan dago, fase baten amaieran eta beste baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar besteko garrantzirik eman; izan ere, erabileraren korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta gipuzkoarrontzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan hartzeko beste datu bat: Gipuzkoako udalerri gehienetan ulermena % 80tik gorakoa da, eta gainerakoetan biztanleen % 60k baino gehiagok ulertzen du euskara.

Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren 23tik abenduaren 3ra

De acuerdo con la VI Encuesta Sociolingüística realizada en 2016, en las últimas décadas los datos de conocimiento han aumentado considerablemente, sin embargo, el uso no ha crecido en la misma medida; el 57,4 % de la población de más de 2 años que vive en Gipuzkoa es vascoparlante, y el 73,3 % de la población entiende el euskera. En cambio, los datos sobre el uso indican que en Gipuzkoa habla en euskera el 39,5 % de la población de más de 16 años.

A la vista de estos datos, el proceso de normalización del euskera se encuentra en un punto de inflexión, al final de una fase y al inicio de otra. En esa nueva etapa, es evidente que hay que incidir en el uso de la lengua.

No le hemos dado la importancia necesaria a la comprensión del euskera, y, para poder deshacer el nudo del uso de la lengua, la comprensión es una clave principal. Así, si subrayamos el valor de la comprensión del euskera, si extendemos completamente la comprensión, abriremos un espacio amplio y productivo para el euskera y los guipuzcoanos. Otro dato a tener en cuenta: en la mayoría de los municipios guipuzcoanos la comprensión es superior al 80 %, y, en el resto, más del 60 % de la población entiende el euskera.

Euskaraldia, 11 días en euskera, del 23 de noviembre al 3 de diciembre

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

En ese contexto, la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Topagunea, en colaboración con numerosos agentes, han puesto en marcha la iniciativa Euskaraldia. Nuestro municipio también se ha implicado con todo empeño, y la comisión encargada de desarrollar la iniciativa ya está trabajando en ello.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Hiru subjektu-mota bereizi dira: ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo.

Vamos a invitar a la ciudadanía a realizar durante 11 días una nueva práctica lingüística. Las personas mayores de 16 años seremos los sujetos de este ejercicio, y la propuesta consiste en realizar un ejercicio colectivo durante 11 días para cambiar nuestros hábitos lingüísticos, haciendo hincapié en la comprensión. Se han diferenciado tres tipos de participantes: ahobizi, belarriprest y bihotzgoxo.

Ahobiziek, 11 egun horietan, euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, belarriprestek, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta belarriprestak berak euskaraz edo gaztelaniaz erantzun. Bihotzgoxoek ez dute euskara ulertzen, baina gustoko dute ingurukoak euskaraz aritzea.

Durante esos 11 días, las personas ahobizi hablarán en euskera con todas aquellas que lo entiendan, las personas belarriprest, en cambio, invitarán a sus interlocutores a que se dirijan a ellas en euskera, independientemente de que les contesten en euskera o en castellano, y las personas bihotzgoxo no entienden el euskera, pero le agrada que las personas de su entorno lo utilicen.

Ekimenaren helburua hau da, besteak beste: ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta biziaraztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

El objetivo de la iniciativa es visibilizar y vivir en primera persona, mediante este ejercicio práctico, que es posible transformar los hábitos lingüísticos, y, en la medida de lo posible, mantener las nuevas prácticas lingüísticas después de esos 11 días.

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta udaletan

EAEko euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiak honako datu hauek jasotzen ditu amaierako ebaluazio-txostenean:

- Gipuzkoako ordezkari politikoen % 90,4 gai da euskara ulertzeko eta % 86,8 euskaraz hitz egiteko.
- Gipuzkoako langile publikoen % 86,8k ongi edo oso ongi hitz egiten du euskaraz.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, erabileran eragiteko baldintza egokiak ditugu Gipuzkoan. Euskaraldia, ostera, abagune aproposa dugu Gipuzkoako erakunde publikook eta arduradun politikook dagokigun erantzukizuna geure gain hartu eta eredugarritasunez joka dezagun, erabileran urrats berriak egin ditzagun.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

**<u>ERAKUNDE ADIERAZPENA</u>**

Eibarko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.

Euskaraldia en la Diputación Foral y en los municipios de Gipuzkoa

El V Plan de normalización del uso del euskera de la CAV recoge los siguientes datos en su informe de evaluación final:

- El 90,4 % de los representantes políticos guipuzcoanos es capaz de entender el euskera, y el 86,8 % de hablarlo.
- El 86,8 % del personal al servicio de las administraciones públicas de Gipuzkoa habla bien o muy bien en euskera.

Teniendo en cuenta los datos indicados y la situación sociolingüística de Gipuzkoa, contamos con unas condiciones apropiadas para impulsar el uso del euskera. Euskaraldia, además, nos ofrece una oportunidad incomparable a las instituciones públicas y a los responsables políticos de Gipuzkoa para asumir las responsabilidades que nos corresponden y actuar de forma ejemplar, y para dar nuevos pasos en el uso de nuestra lengua.

Por todo ello, presentamos esta

**<u>DECLARACIÓN INSTITUCIONAL</u>**

El Ayuntamiento de Eibar quiere manifestar que:

- El Pleno Municipal se une a la iniciativa Euskaraldia y se hará cargo de su promoción. Para ello, se compromete a actuar con responsabilidad y ejemplaridad.

- Ordezkari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo gehien aktibatzeko urratsak egingo ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.

- Ahobiziok euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Belarriprestok gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

- Bihotzgoxook ez dugu euskara ulertzen, baina gustuko dugu ingurukoak euskaraz aritzea
- Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.
- Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

- Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin Gipuzkoan, ahalik eta udal eta mankomunitate gehienetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Batzar Nagusietan,

- La función principal de los responsables políticos será difundir la iniciativa en el marco del Euskaraldia y, especialmente, dentro del ayuntamiento. Con ese fin, dará los pasos necesarios para activar el mayor número de personas ahobizi, belarriprest y bihotzgoxo, tanto entre los responsables políticos como entre la plantilla municipal.
- Las personas ahobizi nos comprometemos a hablar en euskera con quienes lo entienden.
- Las personas belarriprest invitaremos a nuestros interlocutores a que nos hablen en euskera, aunque nosotros les contestemos en euskera o en castellano.
- Las personas bihotzgoxo no entendemos el euskera, pero nos gusta qu elas personas de nuestro entorno lo utilicen.
- El Ayuntamiento adoptará medidas para hacer posible esas prácticas lingüísticas y poder mantenerlas en el futuro.
- El Ayuntamiento, como promotor de la iniciativa, invitará tanto al personal y a los y las políticas del ayuntamiento como a la ciudadanía en general a participar en la iniciativa Euskaraldia, y facilitará la inscripción.
- El Ayuntamiento está de acuerdo en desarrollar la iniciativa de forma conjunta, colectiva y simultánea en Gipuzkoa, en el mayor número de municipios y mancomunidades, en la Diputación Foral y en las Juntas Generales de Gipuzkoa, con

lurralde mailako politika bateratu bati begira."

Udalkideak jakitun geratzen dira.

7. **EIBARKO EAJ-PNV TALDEAK AURKEZTU DUEN MOZIOA MERKATARITZA EDO INDUSTRIA ERABILERARAKO LOKALEN ERREGISTRO BAT SORTZEKO.**

**Mendicute Rodríguez jaunak** adierazi du bere taldeak beti desiratu duela Eibar bizitzeko eta lan egiteko tokirik onena izatea eta, azken alderdi horri dagokionez, azken urteotan hainbat proposamen egin dituztela eta beste talde batzuekin akordioetara iritsi direla, bereziki Partidu Sozialistarekin; horrek ahalbidetu du udal aurrekontuetan Tekniker inkubagailua bezalako neurriak gauzatzea, enpresak sortzeko, finkatzeko eta ondorengoei transmititzeko diru-laguntzak ematea, edo negozio berriak martxan jartzea ahalbidetzen duten lokal industrialentzako diru-laguntzak egotea.

Ildo horretatik, hutsik dauden lokal komertzial eta industrialen erregistro borondatezko bat sortzea proposatzen dute, negozio berri bat martxan jarri nahi duten pertsonek erabili ahal izango dutena; hitz batean, tresna erabilgarri eta xume bat da ekintzaileentzat.

el fin de promover una política unificada a nivel territorial."

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

7. **MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EIBARKO EAJ-PNV RELATIVA A LA CREACIÓN UN REGISTRO DE LOCALES PARA USO COMERCIAL O INDUSTRIAL.**

El **Sr. Mendicute Rodríguez** manifiesta que su grupo siempre ha deseado que Eibar sea el mejor lugar para vivir y trabajar y, en este último aspecto, en los últimos años han planteado diversas propuestas, llegando a acuerdos con otros grupos, en particular con el Partido Socialista, y que he permitido plasmar en los presupuestos municipales medidas tales como la creación de una incubadora de Tekniker, subvenciones para la creación, consolidación y sucesión de empresas, o ayudas para la reforma de locales industriales que permitan poner en marcha nuevos negocios.

En esta línea, proponen la creación de un registro voluntario de locales comerciales e industriales vacíos que pueda ser utilizado por aquellas personas que pretenden poner en marcha un nuevo negocio; en definitiva, se trata de un instrumento útil y sencillo para estos emprendedores.

EAJ-PNVko udal taldeko bozeramaleak gogorarazi du Eibarren lurzoru industrialaren 80.000 metro kuadro baino gehiago daudela erabiltzen ez direnak eta, beraz, beharrezkoa dela Udalak horren inguruko neurriak hartzea.

Halaber, kezka adierazi dute hainbat erakundek pabiloiak dituztelako eta lokal horiek ez daudelako negozio bati ekin nahi diotenen eskura; horregatik, behin eta berriz errepikatu dute komeni dela erabiltzen ez den udal ondarea saltzea.

Bere taldeak Eibar solidario, ireki, dinamiko eta berritzaile baten aldeko apustua egiten du eta horregatik egiten dute proposamen hau, gure udalerria dinamikoagoa izan dadin, eta berrikuntza hori erabilerarik gabeko espazioetan egin ahal dadin.

Testuinguru honetan, balioan jarri nahi dute Eibarko industria-ondarea, nahiz eta, dena den, ulertzen duten etorkizunean industria-lurzoru gehiago beharko dela.

Era berean, proposatzen dute gaur egun hutsik dauden Rialtoko postuak ireki daitezela ekintzaile horientzat, praktikan jarri behar den mozio batean onartu zen bezala

Hitz batean, proposamen positibo bat da, bai jarduera berri bati ekiten diotenentzat, bai une hauetan erabilerarik ez duen ondare baten jabeentzat; eta borondatezkoa denez, ez dio inori kalterik egingo; ezta higiezinen agentziei ere;

El portavoz del grupo municipal de EAJ-PNV recuerda que en Eibar hay más de 80.000 metros cuadrados de suelo industrial en desuso y, por tanto, resulta necesario que el Ayuntamiento adopte medidas al respecto.

También muestra su preocupación por que diferentes instituciones dispongan de pabellones que no estén a disposición de quienes pretender iniciar un negocio y, por esta razón, han venido insistiendo en la venta de patrimonio municipal en desuso.

Desde su grupo apuestan por un Eibar solidario, abierto, dinámico e innovador y, por esta razón, formulan esta propuesta con la finalidad de que nuestro municipio sea más dinámico y que esa innovación pueda llevarse a esos espacios en desuso.

En este contexto, desean poner en valor el patrimonio industrial de Eibar, aunque, no obstante, entienden que en un futuro se necesitará más suelo industrial.

Igualmente, proponen que los puestos actualmente vacíos de Rialto se abran para esos emprendedores, tal y como se aprobó en una moción que hay que poner en práctica.

En definitiva, se trata de una propuesta positiva tanto para quienes inician una actividad como para los propietarios de un patrimonio en estos momentos sin destino y, dado su carácter voluntario no debe perjudicar a nadie, en particular a las agencias inmobiliarias, que

agentzia horiek ere erregistro hori erabili ahalko dutelako.

**Errasti Bernedo jaunak** adierazi du bere taldea, printzipioz, ados dagoela aurkeztutako mozioarekin, baina nola antzeko mozioak Garapen Ekonomikoko Aholku Batzordera bideratu diren, ez du ulertzen zergatik ez den organo horretan aztertu aurretik.

Nolanahi ere, uste du arazo handi bat dagoela kontu honetan, asko direlako hutsik dauden lokal komertzialak eta erdigunean kokatuta daudenen prezioak "puztuta" daudelako.

Aldi berean, mozio hau onartzeak zalantza sortzen dio zerbitzu hipotetiko horren kudeaketa-formularen inguruan, alegia: Garapen Ekonomikoaren Sailari esleituz eta, hortaz, lan-zama handiagoa gehituz hango langileei, edo azpikontratazio baten bidez, eta azken kasu horretan ez dago ados.

Euskal Herria Bilduko bozeramaleak halaber zalantza dauka eskumenen inguruan, erregistro horrek talka egin lezakeelako higiezinen agentziek duten eginkizunarekin edo Eusko Jaurlaritzako SPRI bezalako beste erakunde publiko batzuek industria-lurzoruen inguruan duten funtzioekin.

Laburbilduz, bere taldeak mozioaren alde egingo duela iragarri du, baina zalantzak adierazi ditu udalak zerbitzu berri horri bere bitartekoekin aurre egiteko eskumenari eta gaitasunari buruz.

también podrán hacer uso del mismo si así lo desean.

El **Sr. Errasti Bernedo** afirma que, en principio su grupo está de acuerdo con la moción presentada pero, como mociones similares se han derivado a la Comisión Asesora de Desarrollo Económico no entiende por qué no se ha tratado previamente en ese órgano.

De todas formas, a su entender existe un problema importante por el número de locales comerciales vacíos y los precios *"inflados"* de los ubicados en el centro de la ciudad.

Al mismo tiempo, la aprobación de esta moción le plantea la duda sobre la fórmula de gestión de ese hipotético servicio, es decir: asignándolo al Área de Desarrollo Económico y, por tanto, añadiendo más carga de trabajo a su personal o mediante una subcontratación; en este último supuesto, muestra su rechazo.

El portavoz de Euskal Herria Bildu también duda sobre el título competencial, puesto este registro podría entrar en colisión con la función que llevan a cabo las agencias inmobiliarias u otras entidades públicas como SPRI del Gobierno Vasco respecto a los suelos industriales.

En síntesis, anuncia el apoyo de su grupo a la moción aunque con las dudas plateadas sobre la competencia y la capacidad municipal para hacer frente a este nuevo servicio con medios propios.

**Aguirre Unceta andreak** ere mozioaren alde egingo duela adierazi du, baina higiezinen kudeatzaileen jarduerarekin lehia bidegabea egon daitekeela dio.

Halaber, hutsik dauden lokalak egotea saihesteko neurrien aldekoa da —Eibarren irudi eskasa ematen dute— eta baita gaur egun abandonatuta dagoen industria-ondarea biziberritzekoak ere.

Era berean, uste du erregistroa informazio-izaera hutsekoa izan behar dela, hau da, Udalak lokalei buruzko informazio eman behar du eta ezin du parte hartu haiei buruzko inolako negoziaziotan.

**Alkate-udalburu jaunak** adierazi du bere taldeak eztabaidagai den mozioaren alde egingo duela eta lan-proposamentzat jotzen duela, zeren eta, aldez aurretik, beharrezkoa baita baloratzea dagokigun eskumen baten aurrean gauden ala ez udal legedi berriaren arabera.

EAJ-PNV udal taldeari zera eskatu dio, baldin eta ezagutzen badu beste udalerri bat zerbitzu hori ematen duena azal dezala nola kudeatzen ari den.

Bere iritzian, kontuan hartu beharko litzateke higiezinen sektorearen kezka balizko lehia bidegabe baten aurrean, izan ere, ez da planteatzen higiezinen agentziek beren lokalak inskriba ditzaketenik udal erregistro horretan. Hala, erregistroaren eginkizuna bi aldeak kontraprestaziorik gabe harremanetan jartzea izango litzateke; higiezinen agentziak, ostera,

La **Sra. Aguirre Unceta** también anuncia su apoyo a la moción aunque plantea la posible competencia desleal que pudiera existir con la actividad de los gestores inmobiliarios.

Así mismo, se muestra partidaria de medidas que eviten la existencia de locales vacíos que dan una imagen deteriorada de Eibar y de que se revitalice el patrimonio industrial hoy abandonado.

Igualmente, cree que el registro debe tener carácter únicamente informativo sobre las características de los locales y que el Ayuntamiento no puede participar en negociación alguna sobre los mismos.

El **Sr. Alcalde-Presidente** expresa el apoyo de su grupo a la moción objeto de debate y la considera una propuesta de trabajo, puesto que, previamente, es necesario valorar si estamos ante una competencia propia o impropia de acuerdo con la nueva legislación municipal.

Solicita al grupo municipal de EAJ-PNV que, si conoce otro municipio que preste este servicio explique cómo se está gestionando.

En su opinión, habría que tener en cuenta la posible preocupación del sector inmobiliario ante una posible competencia desleal, ya que entiende que no se plantea que las agencias inmobiliarias puedan aportar sus locales a este registro municipal. Así, la función a desarrollar sería la de poner en contacto a ambas partes sin contraprestación alguna mientras que las

zerbitzu gehiago ematen dituzte prezio batzuen truke.

Beraz, eskatuko du eskumenen kontua argitzea, horrekin lotutako edozein ekimen martxan jarri aurretik.

**Mendicute Rodríguez jaunak** berretsi du erregistro horren izaera informazio hutsekoa dela, eta uste du tresna horrek agentzia pribatuentzako ere balio dezakeela. Azpimarratu du Industria Birmoldaketarako Sozietateak (SPRI) kokapen posibleei buruzko informazioa ematen diela Euskadin finkatu nahi diren enpresei. Horregatik, uste du udal erregistroak eman dezakeen informazioa erabilgarri izan litekeela.

Gainera, uste du oraingo programa informatikoek aukera ematen dutela informazio baliagarria lortzeko ekintzaileen premiei buruz eta egun erabilerarik gabe dauden 80.000 $m^2$ industria-lurzoru horien ezaugarriei eta gabeziei buruz.

EAJ-PNV taldeko bozeramalearen iritziz, erregistro honen informazioarekin sustapen-politika publikoak ezar litezke lokalak berrerabiltzeko eta enpresak sortzeko.

Azkenik, zuzentzat jotzen ditu Alkate-udalburu jaunak erregistroaren informazio-izaerari buruzko azalpenak eta adierazi du onartu egingo

agencias inmobiliarias prestan más servicios a cambio de un precio.

Por tanto, solicitará que se aclare la cuestión competencial antes de poner en marcha cualquier iniciativa al respecto.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** reitera el carácter meramente informativo de este registro y cree que podría ser utilizado también por las agencias privadas del sector inmobiliario. Resalta que la Sociedad para la Reconversión Industrial (SPRI) facilita información sobre posibles ubicaciones a aquellas empresas que desean implantarse en Euskadi. Por esta razón, entiende que también sería útil la información que pudiera facilitarle este registro municipal.

Además, cree que los programas informáticos actuales permiten obtener información valiosa sobre las necesidades de las personas emprendedoras y sobre las características y carencias de esos 80.000 $m^2$ de suelo industrial actualmente en desuso.

En opinión del portavoz del grupo de EAJ-PNV, con la información de este registro podrían implementarse políticas públicas de apoyo a para la reutilización de locales y creación de empresas.

Por último, entiende que las aclaraciones del Sr. Alcalde-Presidente sobre el carácter informativo del registro son correctas y manifiesta que aceptarán el criterio técnico sobre los aspectos competenciales de este servicio.

dutela zerbitzu horren eskumen-alderdiei buruzko irizpidea.

**Albistegui Zamacola jaunak** adostasuna azaldu du orain arte esandakoarekin eta gogorarazi du Lehiakortasunaren Mahaian egin dela azterketa bat industria-orube eta eraikinei buruz, agian SPRIrentzat interesgarri izan daitekeena, nahiz eta ez izan modu indibidualizatuan.

Horrekin lotuta, argitu du informazio hori helarazi dela sozietate publiko horretara, baina eskuragarri dauden pabiloien prezioak ez direla lehiakorrak haien balioa batez bestekoaren % 25-%30 handiagoa delako.

Eta amaitzeko bere zalantzak adierazi ditu halako lokaletako datuak balioetsi eta eguneratzeko moduaren gainean.

Udalbatzak, aho batez, honako mozio hau onartzen du:

**MOZIOA**

Arrazoiak

Ekonomia-jardueretan jarduteko eta aritzeko aukera lortzen laguntzeko dator merkataritza- edo industria-erabilerarako lokalen erregistro bat sortzeko eskaera hau, gaur egun, ekonomia-jarduerek esparru juridiko konplexu bat bete beharrean baitaude, araudi merkantilak, sektorialak eta toki-araudiak osatuko araudia, alegia; eta araudi hori guztia, Europako araudian, estatuko

El **Sr. Albistegui Zamacola** se muestra conforme con lo manifestado hasta el momento y recuerda que en la Mesa por la Competitividad ya se ha elaborado un estudio sobre solares y edificios industriales que pudieran interesar a SPRI aunque no de forma individualizada.

En este sentido, aclara que se ha hecho llegar esa información a la sociedad pública aunque los precios de los pabellones disponibles no son competitivos pues su valor es un 25%-30% superior a la media.

Y para finalizar, expresa sus dudas sobre la forma de validación y actualización de los datos de este tipo de locales.

En consecuencia, el Pleno de la Corporación, por unanimidad, aprueba la siguiente

**MOCIÓN**

Justificación

La creación de un registro de locales para uso comercial o industrial es una iniciativa encaminada a coadyuvar en la consecución del acceso a las actividades económicas y su ejercicio actualmente sometidos al cumplimiento de un complejo marco jurídico formado por normativa mercantil, sectorial y local, dispersa en normativa europea, leyes y reglamentos nacionales, autonómicos y locales.

lege eta erregelamentuetan nahiz autonomia-erkidegoen zein toki-arauetan sakabanatua dago. Era berean, erregistro horrek balio dezake komunikazio-tresna gisa ere, une honetan okupatu ahal diren higiezin hutsen titularrekin hartu-emanean jartzeko.

Tresna berri honek animatu ditzake merkataritza- edo industria-lokalen jabeak lokal horiek beste batzuen eskuetan jartzera, horretarako, errenta-mekanismoa erabiliz; lokal bila dabiltzatenentzako tresna ere bada, lekuak bilatzen laguntzeko; horrela, ekintzailetzaren aldeko laguntza instituzionaleko politiken eraginkortasuna hobetuz. Politika horiek kultura ekintzailearen laguntza-, informazio-, aholkularitza- eta sustapen-zerbitzuek eskaintzen dituzten ekimen publiko guztiak hartzen dituzte beren baitan; edo, zerbitzu horiek modu pribatuan ematearen alde egiten dute, laguntza-eskemen bidez eta laguntzak edo finantzabidea emanez.

Beraz, merkataritza- eta industria-lokalen erregistroa sortuta, Eibarko udalerrian dauden lokal-jabeen eta, etorkizunean, lokal horien errentero izan daitezkeenen arteko hartu-emana erraztu eta sustraitu nahi da. Errentatzailearen eta errentariaren arteko hartu-eman hori neurri handiago batean errazteko, lokalek eta pabiloiek dauzkaten baldintzak emango dira, baldintza legalak eta teknikoak, alegia.

Hori guztia kontuan hartuta, Udal honetako Osoko Bilkurak ondokoa erabaki du:

AKORDIOA

Paralelamente, este registro puede servir de vehículo de comunicación con aquellos titulares de inmuebles vacíos que en el momento actual precisen de su ocupación.

Este nuevo instrumento puede animar tanto a los propietarios de locales comerciales o industriales a su puesta a disposición en favor de terceros a través del oportuno mecanismo de arrendamiento como a los propios terceros en la búsqueda de emplazamientos, mejorando la eficacia de las políticas de apoyo institucional al emprendimiento. Estas políticas abarcan todas aquellas iniciativas públicas que ofrecen servicios de asistencia, información, asesoramiento y fomento de la cultura emprendedora o impulsan la prestación de estos servicios con carácter privado a través de esquemas de colaboración y de la concesión de ayudas o financiación.

Con la creación de un registro de locales comerciales o industriales se pretende informar y facilitar el contacto entre propietarios de locales ubicados en el municipio de Eibar y futuros arrendatarios. Para facilitar en mayor medida este contacto entre el posible arrendador/a y arrendatario/a se facilitarían las condiciones legales y técnicas de los locales y pabellones.

Por todo ello, el Pleno de este Ayuntamiento adopta el siguiente

ACUERDO

1. Eibarko Udal Osoko bilkurak agindu hau ematen dio gobernu-taldeari: sor dezala erregistro bat, borondatezko izaerakoa, Eibarko udalerriko merkataritza- edo industria-erabilerako lokalen eta pabiloien jabeentzat. Erregistro horretan, besteak beste, ekipamendu horien baldintza legalak eta teknikoak jasoko dira; horrela, ekintzaileek balio handiko informazioa edukiko dute beren enpresaren edo negozioaren espezifikotasunari ondoen egokitzen zaizkion lokalen ezaugarriak zehazteko.

   Era horretan, helburu hauek lortuko dira: hutsik dauden baliabide horiek mugiaraztea, toki-garapena ahalbidetuz eta ekintzaileen hasierako inbertsioa murriztuz; eta, bide batez, jarduera ezartzeko behar izaten den denbora murriztea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al equipo de gobierno a la creación de un registro de carácter voluntario para los propietarios de locales y pabellones de usos comerciales o industriales del municipio de Eibar. En dicho registro se recogerán, entre otras cuestiones, las condiciones legales y técnicas de dichos equipamientos, de manera que las personas emprendedoras dispongan de información valiosa para determinar las características de los locales que mejor se adapten a la especificidad de su empresa o negocio.

   De esta manera, se conseguirá un objetivo múltiple: movilizar dichos recursos vacantes incentivando el desarrollo local y minorar la inversión inicial de los emprendedores reduciendo de paso los plazos de implantación de la actividad.

## 8. EIBARKO EAJ-PNV TALDEAK AURKEZTU DUEN MOZIOA GIPUZKOAKO OINARRIZKO FUTBOLEKO FORMAKUNTZA-EREDUAN EIBAR K.E.AK BEHARREKO LEKUARI BURUZKOA.

**Alkate-udalburu jaunak** azaldu du PSE-EE-PSOE taldea akordio batera iritsi dela EAJ-PNV taldearekin aurkeztutakoari egindako erdibideko mozio bati buruz; eta Idazkaritzak azaldu duenez,

## 8. MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO EIBARKO EAJ-PNV RELATIVA A LA POSICIÓN QUE HA DE ADOPTAR LA S.D. EIBAR EN EL MODELO DE FORMACIÓN DE FÚTBOL BASE GUIPUZCOANO.

El **Sr. Alcalde-Presidente** informa que el grupo de PSE-EE-PSOE ha llegado a un acuerdo con el grupo de EAJ-PNV sobre una moción transaccional a la presentada y que por

beharrezkoa litzateke proposamena egin duen taldeak hasierako mozioa erretiratzea erdibidekoa aztertu ahal izateko.

**Mendicute Rodriguez jaunak** iragarri du bere taldeak erretiratu egiten duela hasierako mozioa.

**Lamarain Cobo andreak** esan du orain arte ez zutela erdibideko mozioaren testuaren berri.

**Alkate-udalburu jaunak** gogorarazi du Bozeramaleen Batzordean erdibideko proposamen bat aurkeztu zuela, baina Euskal Herria Bildu eta Irabazi taldeek planteatu zuten testuan jasota laga nahi zutela administrazio publikoek ez zutela diru-laguntzarik eman behar kirol-azpiegituretarako. Hala, eta ekarpen hori sartu arren, Euskal Herria Bildu taldeak zalantzak azaldu zituen bere botoaren zentzuaren gainean eta Irabazik berretsi egin zuen kontrako bozka. Ondorioz, erdibidea adostua zuten taldeak hasierako testura itzuli ziren esaldi hori kenduta, horrela erdibideko mozioa onartzea bermatzen zelako.

**Aguirre Unceta andreak** argitu du bere taldeak kontra bozkatuko duela, ez baita bereizi oinarrizko futbolaren eta erakunde pribatuei emandako diru-laguntzen artean.

**Alkate-udalburu jaunak** berretsi du mozioko testuaren aldaketa EAJ-PNV eta PSE-EE-PSOE taldeen artean erdibideko mozioa onartzeko segurtasunari zor zaiola.

indicación de la Secretaría sería necesario que el grupo proponente retirase la moción inicial para poder tratar la transaccional.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** anuncia que su grupo retira la moción inicial.

La **Sra. Lamarain Cobo** manifiesta que hasta el momento no tenían conocimiento del texto de la moción transaccional.

El **Sr. Alcalde-Presidente** recuerda que en la Junta de Portavoces presentó una propuesta de transacción, pero los grupos de Euskal Herria Bildu e Irabazi plantearon la necesidad de dejar constancia en el texto que las Administraciones Públicas no debían conceder ayudas económicas para las infraestructuras deportivas. Así, y a pesar de incluir esa aportación, el grupo de Euskal Herria Bildu transmitió sus dudas sobre el sentido de su voto e Irabazi se reafirmó en su voto contario. Por tanto, los grupos que habían acordado la transacción volvieron al texto inicial eliminando esa frase puesto que así se garantizaba la aprobación de la moción transaccional.

La **Sra. Aguirre Unceta** aclara que su grupo vota en contra al no haberse discernido entre el fútbol base y las ayudas públicas a instituciones privadas.

El **Sr. Alcalde-Presidente** reitera que el cambio del texto de la moción se debe a la seguridad de aprobar la moción transaccionada entre los grupos de EAJ-PNV y PSE-EE-PSOE.

**Lamarain Cobo andreak** zehaztu du bere taldeak ez zuela eskatu erdibideko mozioaren testua aldatzea geroago akordio batera iristeko proposamena egin duten taldeekin; soilik zalantzan jarri zuten lehen mailako talde bati laguntzea azpiegiturak eraikitzeko.

**Mendicute Rodriguez** jaunak galdetu du ea gainerako taldeek izan zuten Bozeramale Batzordean aurkeztutako erdibideko mozioaren edukiaren berri.

**Lamarain Cobo andreak** erantzun du baietz.

Gaiaren mamiari dagokionez, **Lamarain Cobo andreak** adierazi du ezin direla egon mozioaren lehen puntuaren aurka, zeinak diru-laguntzen banaketa ekitatibo bat eskatzen duen bai oinarrizko futbolarentzat bai gainerako kirolentzat. Baina, aldi berean, planteatzen du ea helarazi zaion mozioaren edukia Gipuzkoako Foru Aldundiari —proposamena egin duten taldeek elkarrekin gobernatua—, eraginkorragoa izango litzateke-eta Bilkuran aztertzeko.

Bestalde, Bozeramale Batzordean planteatu zuten bezala, ez dago enpresa pribatuei haien azpiegiturak egiteko diru-laguntzak ematearen alde, batik bat, Eibar KEren aurrekontua udal aurrekontua baino handiagoa dela kontuan hartuta.

La **Sra. Lamarain Cobo** precisa que su grupo no solicitó que se cambiara el texto de la moción transaccionada para posteriormente llegar a un acuerdo con los grupos proponentes; simplemente pusieron en duda que se ayudase a un equipo de primera división para la construcción de infraestructuras.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** pregunta si los demás grupos se dieron por enterados del contenido de la moción transaccionada presentada en la Junta de Portavoces.

La **Sra. Lamarain Cobo** responde afirmativamente.

